# Zestoako Udalaren hizkuntzen erabilera-plana

## 2018ko kudeaketa plana

## ZERBITZU HIZKUNTZA: 1- Erakundearen irudia

| Helburua | Neurriak | Eragindako langileak |
|---|---|---|
| Udal erakinak erabiltzen dituzten entitateek bermatzea Udalaren hizkuntza irizpideak haien errotulazioan. | • Errotulazioen araudia eguneratzea eta argitaratzea | HNT<br>Idazkaria |
| | • Eragindakoei jakinaraztea eta aldaketak egiteko laguntza eskaintzea | HNT<br>Kultura, Kirol eta Gazteria teknikariak |
| | • Betetze-mailaren jarraipena egitea | HNT<br>Kultura, Kirol eta Gazteria teknikariak |
| Udala parte aktibo izatea (eragile, sustatzaile…) euskara sustatzeko egitasmoetan. | • Zestoako Udalak parte hartzea Euskaraldian, bai ordezkari politikoek, baita langileek ere. | HNT |
| Bikain agiria erabiltzea | • Bikain agiria lortu izana zabaltzea<br>• Bikain ikurra irudi korporatibora integratzea<br>• Irudi korporatiboa erabiltzeko irizpideak zehaztea, udal estilo-liburua garatzean | HNT<br>Udal teknikariak |

## ZERBITZU HIZKUNTZA: 2- Herritarrekiko harremanak

| Helburua | Neurriak | Eragindako langileak |
| --- | --- | --- |
| 2.1- Herritarrekiko idatzizko harremanetan herritarrek aukeratutako hizkuntzan tramitazio osoa burutu ahal izatea | • Jarraipen sistema arina eta erabilgarria sortzea | HNT<br>Udal teknikariak |
| 2.2- Lehenengo hitza beti euskaraz izatea. | • Udal ordezkariek eta langileek beti "ahobizi" jokatzea | Udal ordezkariak eta langileak |
| Erantzungailu automatikoen mezuak estandarizatzea | • Udalarenak diren telefono guztietan, ahozko mezu estandarizatua grabatzea. | HNT<br>udal ordezkariak |

## LAN HIZKUNTZA: 3- Barne harremanak

| Helburua | Neurriak | Eragindako langileak |
| --- | --- | --- |
| Ahozko harreman ez-formal guztiak euskaraz izatea, langileen artekoak zein langile eta ordezkari politikoen artekoa. | • Udal langileek eta ordezkari politikoek Euskaraldian parte hartzea. | Udal ordezkariak eta langileak |
| Oraindik gazteleraz dauden aplikazioak euskaratzea edo euskarazko baliokidea instalatzea | • Aplikazioen euskarazko bertsioak edota baliokideak instalatzea. | HNT<br>udal teknikariak |

## LAN HIZKUNTZA: 4- Pertsonen kudeaketa

| Helburua | Neurriak | Eragindako langileak |
|---|---|---|
| **4.1- Pertsonen kudeaketa** | | |
| Langile berriak hautatzean neurriak ezartzea ziurtatzeko lanerako behar besteko gaitasuna dutela. | • Hautaketa prozesuetako ariketa praktikoan, ariketa "erreal" bat txertatzea. Hots, lanean sortu beharreko dokumentu bat sortzeko eskatzea. | HNT<br>Hautaketako epaimahaia |
| **4.2- Laneko prestakuntza** | | |
| Udala eragile izatea langileen prestakuntza antolatzen dituzten erakundeei eskaintza osoa euskaraz ere izan dezaten. | • Eskaintzaren jarraipena egitea eta langileen interesekoak diren ikastaroak euskaraz ere izatea eskatzea | HNT |

## LAN HIZKUNTZA: 5- Kanpo harremanak

| Helburua | Neurriak | Eragindako langileak |
|---|---|---|
| **5.1- Administrazioa** | | |
| EAEko administrazioekiko harreman oro euskaraz izatea | • Jarraipen sistema eta, dagokionean, neurri zuzentzaileak | HNT<br>Hautaketako epaimahaia |
| **5.2- Erakunde pribatuak** | | |
| Erakunde pribatuei udalaren hizkuntza irizpideen berri ematea eta gonbidatzea elkarren arteko harremanetarako euskara lehenestera. | • Tartean kontratazio bat dagoenean, kontratuko baldintza orriek jasoko dituzte enpresak bete beharreko hizkuntza irizpideak.<br>• Tartean diru-laguntza deialdia dagoenean, deialdiak jasoko ditu onuradunak bete beharreko hizkuntza irizpideak.<br>• Bestelako kasuetan, Udalak harremanak euskaraz izatea eskatuko du. | Udal teknikariak<br>Idazkaria<br>Alkatea |

| LAN HIZKUNTZA: 6- Kudeaketa sistema | | |
|---|---|---|
| Helburua | Neurriak | Eragindako langileak |
| **6.1- Kudeaketa sistema orokorra** | | |
| Kudeaketa sisteman, idatzita zein ez, euskararen kudeaketa jasotzea | • HAPOren garapenaren jarraipen zuzena eta estua egitea | HAPO garatzen duen enpresak<br>Idazkaritza<br>Jarraipen batzordea |
| **6.2- Herritarrak eta zerbitzua** | | |
| Udaleko jardueran gerta daitezkeen hizkuntza eskubideen urraketak edota herritarren kexak eta eskaera oro aztertu, ebatzi eta jakinaraztea. | • Hizkuntza urraketen eta hizkuntzaren gaineko herritarren kexen eta eskaeren erregistroa sortzea eta argitaratzea | HNT |
| **6.3- Pertsonen kudeaketa** | | |
| Langile zein ordezkari politiko berrientzat harrera gidak garatzea eta bertan jasotzea hizkuntza kudeaketaren ardura langile guztien ardura dela. | • Harrera gida sortzea | Udal teknikariak<br>Idazkaria<br>Alkatea |